

EUSKARAREN Berripapera

aurkibidea

- 1 • Euskalterm, euskararen terminologia banku publikoa

- 2 • **PERTSONAJEA:** Andolin Eguzkitza, euskaltzain oso izendatua
- **LABURRAK:** Hizkuntza Kontseiluaren biltzar nagusia
- Euskara, arriskuan dauden 3.000 hizkuntzen artean
- **AGENDA:** Expolingua Madrilen, apirilaren 11tik 14ra

- 3 • Abian dira euskararen jaiak
- *Zabalik* astekariaren aro berria

- 4 • *Gogoia*, aldizkari zientifikoa euskaraz
- *Bat-bateko bertsolaritza*, ikerketa sakon berria

Euskalterm, euskararen terminologia banku publikoa: www.euskadi.net/euskalterm


Terminologia Batzordea sortuko du Eusko Jaurlaritzak datozen hilabeteotan

Euskararen terminologia banku publikoa da Euskalterm 2001eko uztailaren 13az geroztik. Izan ere, egun horretan, Eusko Jaurlaritzak eta UZEIk izenpetutako kontratuaren bitartez, UZEIk datu-banku terminologikoa erreproduzitu, banatu eta jendeari komunikatzeko eskubi-deak, bai eta eraldatzekoak ere, laga zizkion Eusko Jaurlaritzari.

Terminologia banku publikoa

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak VI. atalean euskararen erronkak finkatzen ditu datozen hamar urteetarako. Erronka horiek hiru mailatan bereizita agertzen dira: helburu nagusia, helburu estrategikoak, eta helburu zehatzak eta proposamen-egitasmoak. Helburu zehatzen artean, "Corpus plangintza eta euskararen kalitatea" azaltzen da. Besteak beste, honako hau agintzen du Planak horri dagokionez: "Terminologia-lanaren plangintza egin datozen urteotarako". Horren ildotik, Administrazioak kudeatutako banku terminologikoa publikoa sortzea izan da lehenengo pausoa, terminologia lana antolatu, koordinatu eta kudeatzeko bidean. Euskalterm, UZEIk 1987an sortu zuena hain zuzen, da banku publikoaren oinarri, bera baita herri-aginteez finantzatutako banku terminologikoa bakarra eta orain arte bateratutako terminologiak biltzen dituen.

Bestalde, Administrazioaren ardurapekoa den terminologia bankuak eragin handia izango du terminologia berezituaren erabileraren bateratasunean (banku ofizial askoren antzera: Eurodicautom, Termium, GDT, BTERM...). Izan ere, oso garrantzitsua da eremu berezituetakoa adituek terminologia berbera erabiltzea, hau da, bikoiztasunak eta anbiguotasunak saihestea.



Euskalterm eguneratzea eta elikatzea

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak –azken honek terminologia juridiko-administratiboari dagokionez– finantzatuko dute Euskalterm. Helburu horretarako, bi erakunde horiek lankidetzahitzarmena izenpetu zuten 2001eko urriaren 2an. UZEIk bi urtez izango du terminologia bankua eguneratzeko eta elikatzeko ardura.

Eusko Jaurlaritzak datozen hilabeteotan Terminologia Batzordea sortuko du Euskararen Aholku Batzordearen barruan. Izan ere, terminologia banku publikoa sortzeaz batera, oso garrantzitsua da bertan txertatutako terminologiek arlo horretan erabakiak hartuko dituen batzordearen bermea izatea. Hizkuntzalariek eta lantzen den espezialitate-eremuko adituek osatutako batzordea izango da eta bere egitekoak, bereziki, honako hauek izango dira: lan-lehentasan finkatzea, proposamenak egitea, irizpideak ematea eta lehiari dauden terminoen artean bat hobestea, terminoei onespena ematea, terminologiak zabaltzeko bideak proposatzea eta terminoak gomendatzea.

Laburrak

Hizkuntza Kontseiluaren biltzar nagusia

Lehen biltzar nagusia egin zuen martxoaren 2an Hizkuntza Kontseiluak. Aurreko bi urteetako aurrekontuak onartu eta hurrengo egitekoak finkatu ziren bertan: Ipar Euskal Herriko inkesta soziolinguistikoa egitea eta euskara sustatzeko Plan Estrategikoa osatzea dira eginkizun larrienak. Erakundearen idazkari nagusi Eguzki Urteagaren iritziz, Plan Estrategikoa hizkuntza politika zehazteko lanabesa beharko du izan botere publikoentzat, euskarak jendartearen duen lekua aztertu eta datozen 10 edo 15 urteetarako helburuak eta estrategiak finkatuko baitira Plan horretan.

Euskara, arriskuan dauden 3.000 hizkuntzen artean

Unescok egin duen *Arriskuan dauden munduko hizkuntzen atlas*-ren arabera, euskara, gailegoa, aragoiera, asturera eta leonera arriskuan dira Espainiar estatuan; katalana da arriskutik kanpo dagoen bakarra. Frantzian, hizkuntza gutxitu denak desagertzeko arrisku larrian daude, korsikera izan ezik. Unescoren txostenak dioenez, munduan hitz egiten diren 6.000 hizkuntzetatik 3.000 galtzeko arriskuan daude, hizkuntzen arteko gatazkagatik batik bat. Europan, Unescok hamarika hizkuntza jarri ditu galtzeko arriskuan direnetan eta, Amerikan, Mexikon bertan 110 hizkuntza hil direla adierazi du. Eta ber gauza da Ertamerikan eta Hego Amerikan.

Agenda

Expolingua Madrilen, apirilaren 11tik 14ra



Expolingua, Nazioarteko Kongresu eta Azoka, Madrilen egin da apirilaren 11tik 14ra. Biltzarren helburu da munduko hizkuntzak eta kulturak ezagutaraztea, hizkuntzen ikastea bultzatzea

Espainian zein kanpoan, argitaletxeen lan berrienak erakustea, hizkuntzak ikasteko teknologia aurrerapenak, gaurkotasan linguistikoa duten gaiak lantzea, hizkuntzen didaktika, etab. Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako ordezkariak ere Expolingua hamabosgarren aldi honetan izan da. Albiste gehiago azokaren web-gunean: www.expolingua.es

PERTSONAJEA

Andolin Eguzkitza Euskaltzain oso izendatua

Andolin Eguzkitza euskaltzain oso izendatu zuen Euskaltzaindiak otsailaren 23an, Santurtzin egindako ekitaldian. Luis Villasante zenaren lekua beteko du euskaltzain berriak.



ZALDI ERO

Andolin Eguzkitza Bilbaok (Santurtzi, 1956), Bilboko eskolapioetan ikasi zuen gaztetan. Ondoren, Filologia Erromanikoa ikasi zuen Deustuko Unibertsitatean, Salamancan jarraitu zuen Koldo Mitxelena zenaren ondoan, eta Alemanian eta Estatu Batuetan ere burutu zituen ikasketak. Linguistika Orokorrean doktore da eta, egun, Hizkuntzalaritza Orokorra, Semantika eta Tipologia Linguistikoa irakasle da Gasteizen, EHUren Filologia fakultatean.

Euskaltzain urgazle da 1991az gero eta euskaltzain oso 2001eko martxoaren 31az gero, sarrera ekitaldia orain eginagatik. Euskaltzaindian, Gramatika batzordeko kide da, Exonomastika azpibatzerdekoa, eta Azkue Biblioteka batzordeko aholkulari. Bestalde, Euskal Idazleen Elkartearen lehendakari izan da 1997tik 2002ko martxo arte, eta Euskararen Aholku Batzordeko kide 1997az gero.

Irakasle ez ezik, idazle ere bada Andolin Eguzkitza. Poesia eta eleberria, biak landu ditu. Argitaratu dituen liburuen artean dira, adibidez: *Lehen orenean* (1978), *Urkidian zehar* (1987), *Mila urte igaro eta ura bere bidean* (1993), *Herioaren itzalpeetan* (1998)...

Euskaltzain oso izendatzeko ekitaldian egin zuen hitzaldiak "Xalotasuna-aren laudorioa" zuen izenburu. Bertan, lehen atalean, Eguzkitzak aurreko euskaltzale santurtziar eta bizkaitarren lana gogorazi zuen; bigarren atalak "Aita Villasanteri gorazarre" zuen izena, eta Luis Villasante zenak euskal literaturari egin zizkion ekarpenak eta hark zuen prosa ederra goraiatu zituen euskaltzain oso izendatu berriak; hitzaldiaren hirugarren atalean, Villasante frantziskotarraren giza balioak, xalotasuna eta apaltasuna, azpimarratu zituen.

Joan den otsailaren 23ko ekitaldiaz gero, Bizkaiko Ezkerraldeko lehendabiziko euskaltzaina da Andolin Eguzkitza. Zorionak!

Abian dira euskararen jaiak

Herri Urrats izango da lehena, maiatzaren 12an, "Hizkuntza, herriaren hats" lemapean

Abiarazi dituzte aurten irakaskuntza arloan burutuko diren euskararen jairik handienak. Urtea joan, urtea etorri, mila-ka eta milaka lagun biltzen dituzten jai erraldoiak abian dira. Ohi denez, Iparraldean egingo da lehena, maiatzaren 12an izango baita Iparraldeko Ikastolen jaia, Herri Urrats. Aurten "Hizkuntza herriaren hats" izango du lema eta, beti bezala, Senpereko lakua- ren inguruan egingo da. Hil berean, maiatzaren 26an, Bizkaiko ikastolen Ibilaldia jaia izango da, aurten Algorta-Getxon, eta "Lotu barik" izango du lelo.

Hurrengo jai handia ekainaren 2an izango da, Euskal Eskola Publikoaren Eguna, "Mugak gaindituz, Eskola handitu" lemapean. Araban izango da hitzordua, Agurainen.


Uda aurreko laugarren festa handia ekainaren 16an izango da, Araba Euskaraz. Antolatzaileek asmatu duten lema "Gure erronka" izango da. Ondategi-Zigoitian, Gorbeialdean burutuko da jaia.

Uda ostean burutuko dira beste bi jai handiak. Lehena, Kilometroak, urriaren 6an izango da, "Elkarren beharrean" lemapean, Urretxu-Zumarragan. Azkenik, urriaren 20an, Nafarroa Oinezen txanda izango da, Tuteran, "Muga guztien gainetik" lema harturik.



Zabalik astekariaren aro berria

Ostiralero kaleratuko den informazio orokorreko aldizkari da



Bi urte eta erdi dira *Zabalik* euskarazko astekaria argitaratzen hasi zirenetik eta martxoan, aro berri bati ekin dio, itxura berriturik. Orain koloretan dator, kalitate handiko paperean, eta grapatu- rik. Ondorioz, informazio orokorreko aldizkari da honezkero, eta, orain arte ez bezala, ostiraletan argita- ratzen dena. Irakurleari informazioa eta zerbitzuak eskaini guran, bi atal nagusi ditu *Zabalik*-ek, berriemailea bata, *Ikusmira*, informazioari garrantzi ematen diona, eta bestea zerbitzuei buruzkoa, *Aukeran*, astebururako alternatibak aukeran jartzen dituena. Bi atal nagusien ondoan, astekariak gai- kako gehigarriak kaleratuko ditu astero-astero: *Kirol-plaza*, lehiarik gabeko kirolaren gainekoa; *Hau da Bizi!*, bizi kalitatea hobetzen lagunduko diguten gaiak landuko dituena; *e-gune@*, teknologia berriez; eta, *Erakusleihoa*, liburu eta disko berriei eskainitako gehigarria.

Era honetako materialetan euskaraz dagoen hutsunea betetzen laguntzera dator

Gogoia, euskarazko aldizkari zientifiko berria

Euskal Herriko Unibertsitateko Logika, Kognizio, Hizkuntza eta Informaziorako Institutuak (ILCLI) euskarazko zientzi aldizkari berria kaleratu du, *Gogoia*, urtean bitan argitaratuko dena eta arloan dagoen euskarazko materialen hutsunea betetzen lagunduko duena. Aldizkari berriak berea egiten du Institutuaren diziplinarteko izaera, Hizkuntza, Ezagutza, Komunikazioa eta Ekintzari buruzko ikerkuntza anitza bultzatzen baitu.


*Gogoia*k, filosofo, logikari, hizkuntzalari, psikologo, matematikari, adimen artifizialeko aditu eta ezagutzari buruzko teoriagile sozialen lanak jasoko ditu.

Lehen zenbakian honako edukiak dakartza, besteak beste, aldizkari berriak: *Empiris- moaren bi dogma*, W.V. Quine-ren artikulua itzulpena; *Hautzeari buruzko arrazoibidea eta bere mugak*, Luis A. Pérez Mirandarena; *Ekintza kolektiboaren inguruko gogoia*, Kepa Kortak eta Jesus M. Larrazabalek idatzia; *Adnominalen markatzaileak euskal gramatikan*, Andolin Eguzkitzarena; eta *Edukiaren efektuak arrazoibide deduktiboan: errazte-efektua eta sineste-isuria*, Pello Huizik egina.

Kepa Korta da UPV-EHUK berak argitaratzen duen aldizkariaren zuzendaria, Sagarrio Yarnoz ari da idazkari lanetan, eta erredakzio batzordean, berriz, Esteban Antxustegi, Xabier Arrazola, Begoña Asua, Arantza Campos, Isabel Gómez Txurruka eta beste batzuk ageri dira.



Bat-bateko bertsolaritza, bertsolarien artearen gaineko ikerketa sakon berria



Joxerra Garzia irakaslea eta Jon Sarasua eta Andoni Egaña bertsolariak dira *Bat-bateko bertsolaritza*, bertsolaritzaren garzeari eta giltzen gaineko ikerketa lanaren egileak. Lau hizkuntzatan argitaratu da: euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez, egileek liburuari zabalpen handia eman nahi izan baitiote, lanaren izaera didaktikoa kontuan harturik, batik bat.

Liburuak bertsolaritzaren aurrekari historikoak, gauzatzen deneko giza eta kultur ingurua, eta bat-batekotasunaren estrategia eta mugarik usuenak lantzen ditu. Era berean, bat-bateko bertsolaritzak informazioaren gizartera egokitzeko eta sorkuntza alternatiboa izateko egin dituen urratsak ere agerian uzten ditu. Azkenik, liburuak bat-bateko bertsolaritza aztertze marko teoriko berezitua behar dela aldarrikatzen du, idatzizko literaturatik aparte.

Liburuaren edukiak Interneten bidez ere irakur daitezke, www.berতোzale.com helbidean.

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 81 16
e-posta: l-Sosoaga@ej-gv.es

Euskaraz Gaztelaniaz

Izen-deiturak:

.....

.....

Helbidea:

.....

Herria:

Kodea:

Lurraldea:

Tel.:

e-posta: